

# Justizia militar frankistari buruzko ikerketak genero ikuspegi batetik. Nafarroako kasua 1936-1948



AITOR GARJON IRIGOIEN

(*Universidad pública de Navarra / Nafarroako Unibertsitate Publikoa*)

[aitor.garjon@unavarra.es • <https://orcid.org/0009-0000-1814-4406>]

## Sarrera

1936ko kolpe militarren ondoren emakumeek jasandako errepresio politikoak gizonen jasandakoaren antzeko elementuak izan zituen, baita elementu espezifikoak eta bereziak ere. Emakumeenganako errepresioaren azterketa, haren testuingurua eta horren atzean zeuden helburuen interesa nabarmena izan da azken hamarkadatan. Egun, ikerketa asko daude frankismoaren errepresio politikoaren inguruan genero ikuspegia erabiliz, baina oraindik landu beharreko azterketak geratzen dira.

Matxinatutako bandoak hasiera-hasieratik, beste batzuen artean, lehentasunezkoa bihurtu zuen errepresio mota bat: justizia militarra, etsaiaren garbiketarako eta paralisirako tresna gisa erabili izan zena. Justizia mota honek milaka pertsona hainbat zigorretara kondenatu zituen, besteak beste, heriotza-zigorra eta gatibutasunera.

Nola erabili zen errepresio hori Nafarroan? Gerra-frontea egon zen beste tokietan bezala erabili al zen? Eta emakumeen kasuan, justizia militarra gizonen aurka erabili zen modu berean erabili al zen? Testu honek genero ikuspegitik egin diren hainbat azterketen deskripzio bat egin nahi du gaia argitzeko eta ikusteko, modu orokorrean, nolakoak izan diren eta zer aztertu duten orain arte. Hortik abiatuta, Nafarroan erabili zen justizia militarreko hurbilketa bat egingen da datu zehatzak ekarriz eta landutako sumarioen adibideak jarritz. Modu berean, behin-behineko ondorioen zertzelada batzuk azalduko dira, aurrera begira dagoen lanari erreparatuz.

2025eko otsailaren 14 eta 15ean egin ziren Historia Sozial eta Ekonomikoko Gerónimo de Uztariz Institutuko Historialari Gazteen I. jardunaldiak, eta bertan aurkeztutakoaren jarraipen bat izan nahi du testu honek.

---

\* [Enviado 2025-06-23 • Aceptado 2025-10-29] • doi: <https://doi.org/10.58504/rgu.39.9>

## Frankismoa eta errepresio politikoa genero ikuspegi batetik

Matxinada militarra eta geroko errepresioaren azterketa historikoan XX. mendearen azken hamarkadatik aurrera hasi ziren arreta jartzen generoan eta sexuen arteko harremanetan. Generoa, testuinguru politiko, sozial eta ekonomikoa aldatzeko gaitasuna duen eraikuntza da, hori dela eta, azterketak egiterako orduan garrantzia eta lehentasuna izan behar du (Abad Buil et al., 2012). Generoa eraikuntza sozial gisa ulertu da azkeneko hamarkadatan, hegemoniko eta mendekoen harreman hierarkikoak sortuz. Harreman horiek ezartzen dute zer den hegemonikoa (maskulinoa) eta zer mendekoa (femeninoa), eta kategoria sozial horiek gorputz sexuatuaren gainean ezartzen dira, hau da, bakoitzaren sexuaren arabera (Scott, 1990). Generoaren erdigunean boterea dago, eta eraikuntza soziala den heinean, botere hori ez da unibertuala ezta naturala ere, nahiz eta botere harreman horiek natural bezala ulertuak izan diren. Horregatik ezinbestekoa da harreman horiek aztertzea gizartearen edozein analisisetan (Llona González eta Aresti Esteban, 2019).

Errepresio frankistak berezko ezaugarriak izan zituen, eta ekintza politikorako eta gizarte-kontrolerako modu bat izateaz gain, erregimenaren beraren osagai ere izan zen. Fenomeno konplexu eta poliedriko horren barruan, emakumeen aurkako zigorrak dinamika propioak izan zituen, eta berezko kategoriatzat hartzen da edozein analisi historikoa egiterakoan (Layana Ilundain, 2021; Scott, 1990). Emakumezkoek zein gizonezkoek errepresio mota berberak jasan zituzten (eraillketak, itxialdiak, torturak, isunak...), baina emakumeak ere zigor espezifikokoak jaso zituzten, gizonezkoek pairatu ez zituztenak.

Arrazoi politikoengatik gizonak eta emakumeak zigortuak izan ziren, baina generoagatik soilik emakumeek, salbuespen bat izan arren, zenbait gizonak ere pairatu zuten, sexu nortasuna eta orientazioa zirela kausa.<sup>1</sup> Errepresio ezberdin horren azterketa sendotu egin da historiografian, eta honekin batera, Maud Joly-k (2002) lehendabizikoz erabilitako «errepresio sexuatu» kontzeptua. Errepresio espezifikoki hori honela laburbil daiteke: biktimaren generoarekin lotuta dagoen indarkeria, errepresioa eta zigorra; sexu-dimentsioaren aurkako eraso (sexu-indarkeriak), genero-identitatearen aurkako eraso eta harekin zerikusia duten elementuak (ilea larru-arras moztea, elizak garbitzera behartzea...) ardatz hartuta (Joly, 2002; Kelly, 2000; Rodríguez Rubio, 2021). Emakumeek jasan zuten errepresioarekiko interesa, batez ere, jazarpen horiek nolakoak izan ziren eta biktimen identifikazioetara bideratu dira ikerketa gehienetan (Cenarro Lagunas, 2023, 5 or.).

Horrela, emakumeek errepresio espezifikoki pairatu zuten beren identitate bikoitzari (emakumea eta gorria) atxikia. Hots, errepresio bikoitza emakumeak izateagatik eta frankismoak indartu zituen genero-arauak urratzeagatik, eta haien parte-hartze edo/eta ezkerreko, errepublikar, anarkista... mugimenduekiko sinpatiatatik. Sexualitatean oinarritutako errepresio espezifikoki eta genero-identitatearen aurkako eraso sinbolikoan jarri zuen indarra ere bai (Cenarro Lagunas, 2023; Piérola Nar-

varte, 2023, 21 or.). Gainera, errepresio espezifikoko horren beste elementu bat aipatu behar da: errepresio subsidiarioa, hots, haienak ez ziren ekintzengatik ezarritako zigorrak. Hala, emakume asko izan ziren zigortuta elkartzeko baten ondorioz, hau da, gizon gorri eta errepublikarren emazteak, alabak edo amak izateagatik (Mir Curc6, 1997; Nash Baldwin, 2015).

Interesgarria da ere Paloma Rodríguez Rubiok dioena emakumeek jasan zuten indarkeriaren inguruan. Bere aburuz, jasandako errepresio horrek dimentsio hirukoitz baten seinale da: iraganeko dimentsioari buruz emakumeak arauak urratu izanagatik zigortu zituzten; orainaldiko dimentsioak adierazten du gerra testuinguru batean errepresioa erabili zela arma psikologiko gisa; eta etorkizuneko dimentsioari begira, erregimen berria eraikitzeko izuaren oinarriak ezarri ziren (Rodríguez Rubio, 2021, 98-107 or.).

### **Justizia militarra eta generoa**

Errebeldeen bandoak matxinada militarren ondoren eragindako indarkeria politikoak oinarritzko hiru funtzio izan zituen gizartean: paralisia, erauzketa eta gizarte kohesioa. Ezabapena izan zen paralisi tresnetako bat eta judizioz kanpoko hilketa eta epaiketa militarren bidez gauzatu zen. Zigorra ere erabili zen paralisia lortzeko eta gerra-kontseiluen bidez inposatu zen. Paralisia sortzea helburu zuen indarkeria mekanismo hori diktadura osoan zehar erabili zen. Hala, 1939-1941 bitartean izan ziren gerra-kontseilu gehien, eta espetxeen eta kontzentrazio-esparruen sareak lortu zuen espetxeetako biztanleria indize handiena. Erauzketa gauzatzeko ezabapen kultura erabili zen, lehenik garbiketaren bidez (zigorra eta isolamenduaren bidez), eta gero erredentzioaren bidez, non eliza katolikoak protagonismo handia izan zuen (Gómez Bravo eta Marco, 2011, 61-64 or.).

Honela, indarkeria politiko frankistaren erroa finkatu zen: justizia militarra eta espetxe-sistema. Horri, jurisdikzio berezien sare zabal bat gehitu zitzaion (Erantzukizun Politikoen Legea, Masoneriaren eta Komunismoaren Errepresioari Buruzko Legea...). 1948tik aurrera, paralisi eta erauzketa publikoa eta pribatua egin eta gero, justizia militarra mantendu zen bi helbururekin: «barne etsai pasiboari» balizko aktibazioaren ondorioak gogorarazteko; eta etengabeko mehatxuaren ideia indartu, alerta eta barne-kohesio mekanismoak aktibatzeke (Gómez Bravo eta Marco, 2011, 67-69 or.).

Hala, kolpe militarra aurrez pentsatutako eta prestatutako zerbait zen, Emilio Molak udaberriaren agindutako jarraibide erreserbatuek erakusten duten moduan. Horrela, justizia militarrek protagonismo handia hartu zuen. 1936ko uztailearen 24an aldarrikatutako Defentsa Nazionalen Batzordeak (Junta de Defensa Nacional, JDN) ezarri zuen, besteak beste, ordena publikoaren aurkako delitu guztiak gerra-kontseiluen bidez epaitu behar zirela, matxinada eta sedizioarenak esaterako. Egun berean, gerra-egoera onartu zen lurralde osoan, eta justizia jurisdikzio militarrek aurrera eraman behar zuela ezarri zen, ahal izanez gero, gerra-kontseilu su-

marisimoen bidez<sup>2</sup>. Handik gutxira premiazko prozedura sumarisimoa ezarri zen, eta haren ezaugarriak nagusiak hauek ziren: laburtasuna, eskubide eza eta fiskaltza defentsaren gaineratik egotea. Errepresio politikorako tresna hori ez zen gerraren bukaerarekin amaitu, alderantziz baizik. Horrela, dokumentu soil batekin eta ordu gutxitan, hautsi zen Espainiako ordenamendu juridiko osoa (Carrillo, 2006; Gómez Bravo eta Marco, 2011; Jimeno Aranguren, 2019).

Justizia militarra, praktikan, epaile militarrek, idazkariek eta justizia arrunte- tik zetozen fiskalek osatzen zuten; edo aurretik inolako prestakuntza juridikorik ez zuten pertsonak. Funtzionarioak askatasunez izendatzen zituen armadako buruak, agerian utziz ez zegoela inolako independentzia judizialik, eta armadako jeneralek beren nagusi militarren jarraibideak eta aginduak besterik ez zituztela betetzen (Carrillo, 2006, 30 or.; Jiménez Villarejo eta Doñate Martín, 2012). Auzitegi horiek ez zuten beren lana gerraren amaierarekin bukatu, alderantziz baizik: mugimendu nazionalaren aurkako prozedura sumarisimoek are garrantzi handiagoa hartu zuten. 1939. urteaz geroztik, estatu berriak errepresio-estrategien hazkundera ekarri zuen, justizia militarrekin batera; eta Armadaren, Estatuaren eta ordena publikoaren defentsa indartu zuen (Castro Campano, 2010; Ibáñez Domingo, 2021b, 3-8 or.).

Justizia militarra genero ikuspegitik aztertzeari dagokionez hainbat ikerketek berresten dute errepresio desberdin bat egon zela, errepresio espezifikoak emakumeei zuzendutakoak. Egotzitako delituekiko zigorren desberdintasuna, deskribapenetan auzipetuen osagai moralaren presentzia handiagoa eta erabilitako hizkera dira interes gehien piztu duten gaietako batzuk. Beste ikerketa batzuek arreta jarri dute auzipetuek salatzen zituzten pertsonengan, zigorren konmutazioetan, edota bizi-raupen- eta erresistentzia-estrategietan.

Ikerketa batzuek justizia militarri buruzko datu orokorrak eskaintzen dituzte, behin-behineko datu horiek baieztatzen dute beti dagoela emakume gutxiago auzipetua eta probintzia bakar batean ere ez dela kopuru hori % 10etik gorakoa izan auzipetutako pertsona guztiekiko. Termino absolutuetan, prozedura militarren % 5 inguru emakumeen aurka izan zen (Ginard Féron, 2011, 271 or.; Ibáñez Domingo, 2021, 66 or.; Moya Alcañiz, 2023).

Ángeles Égido Leónek aztertu ditu konmutatuko heriotza-zigorren emakumezkoen espedienteak, eta egiaztatu du Zigor Azterketen Batzorde Nagusiak (*Comisión Central de Exámenes de Penas*) 16.290 aztertutako espedienteetatik 800 izan zirela emakumeen aurkakoak. Nabarmentzen du erregimenak etsaiaren irudi estereotipatua estigmatizatu eta eraiki zuela, kasu honetan emakume-milizianoa izanik arketipo nagusia. Estigmatizazio horrek zigor handiago bat suposatu zuen? Ezin da ondorioztatu gizonezkoak baino zigortuagoak izan zirenik milizianoak izateagatik. Dena den, bai ondorioztatzen duela milizianoa izatea zigorgarriagoa zela, eta salbuespenik gabe frogatutako ekintza gisa aurkezten zela (Égido León, 2009, 2018).

Konmutatuko espedienteen analisiarekin jarraituz, ezin alde batera utzi Francisca Moya Alcañizek egiten duen analisisa, non 1936-1945 aldirako espediente guztiak

aztertzen dituen, eta errepresio berezia ere existitu zela ikusten duen. Emakumeak perbertsio agentetzat hartzen ziren eta gizonak krimenak gauzatzen zituztenak bezala. Emakumeei agentzia kentzeko estrategia bat gehiago zen, zegokien mendeko rol tradizionala soilik bete behar baitzuten. Dena den, agentzia kentzeak ez zuen salbuetsi zigorrak ezartzerakoan. Ondorioztatzen du landa-eremuko emakumeak gehiago zigortu zituztela hiri-eremukoak baino, eta borondate handiagoa egon zela emakumeei kondena konmutatzerakoan gizonen baino. Bestetik, epaileek erabilitako hizkera zapaltzaile eta sexistaren azterketaren bidez epaitutakoen emakumeen bitzta afektiboari eta sexualari buruzko aipamenak nabarmentzen dira, gizonen aurkako epaiketetan nabarmentzen ez direnak (Moya Alcañiz, 2015, 2023).

Emakume gorriak perbertsio agentetzat hartzerako orduan Antonio Vallejo Nájerak Málagaeko espetxeko emakumeekin egindako esperimntua aipatu behar da. Alemanian Naziak egindako ikerketetan oinarritua 50 emakume presoekin ikerketa “psikologikoak” egin zituen inkestak erabiliz. Ondorioztatu zuen emakume gorriak eta emakumeak orokorrean, behe-mailako ezaugarri fisiko eta psikikoak zituztela gizonezkoekin alderatuta. Gaineratu zuen emakumeek barneratuta zituzten marxismoa eta iraultza medikuntzak tratatu behar zituela eta ez politikak (Nadal Sánchez, 1987, 366 or.).

Emakumeei zigorrak ezartzerakoan izandako borondate onari dagokionez, adierazi egin da gerra-kontseilu bati aurre egin ziotenean zigor arinagoak jaso zituztela, epaileen pentsamoldean errotutako paternalismo etorkorragatik edo delitu txiki bat esleitzearekiko koherentziagatik, hots, aktibismo errepublikazalean edo politikoa zuten bigarren mailako tokiaren isla (Cenarro Lagunas, 2023, 28 or.).

Albaceteko probintziari buruz, María de los Llanos Pérezek heriotza-zigorra ezartzen duten epaiak aztertu ditu, eta nabarmentzen du, batetik, epaitegien jarrrera paternalista eta etorkorra, eta bestetik, emakumeei zigor gogorragoak egotzen zitzaizkiela karguei dagokienez. Horrela, egiaztatu daiteke lurralde horretan ez dela hain agerikoa emakumeei zigorrak gizonen baino gehiago konmutatzeko joera handiagoa zegoenik (Pérez Gómez, 2022). Kontuan izan behar da ikerketa horrek bakarrik heriotza-zigorra zuten sumarioak aztertu dituela, baina orokorrean, emakumeek zigor arinagoak jaso zituzten, arestian Angela Cenarro Lagunas-en ikerketak dioten moduan. Zonalde honetan, heriotza-zigorra zuten emakumeen epaiak desberdintasun handiagoa dute kargua eta zigorraren artean, gizonezkoen kasuan ez zen hain nabaria.

Lucía Prietok Marbellako herrian emakumeei irekitako sumarioen analisi bat egiten du 1937-1939 eperako, amankomuneko akusazio batekin: indarkeria antitklerikalaren edozein modalitatean parte hartu izana. Kasu askotan, moralaren urratze hutsak delitu bihurtzen ziren, eta horrela, karguen eta ezarritako epaien arteko aldea egiaztatzen du. Matxinada militarren delitua atzegoardiaren errepresioan edo agintari politiko gisa zuzeneko inplikazioa zuten gizonezkoen ezartzen zitzairen, emakumeen kasuan ordea, delitu bera ezarri zitzairen urratze moralengatik. Gainera,

beste ikerketa-ildo bat irekitzen du salaketak hasi zituzten pertsonen analisia eginez, eta ia beti emakumeak izen zirela egiaztatzen du (Prieto Borrego, 2007).

Egile berak Malagako probintziarako emakumeen aurka hasitako sumario militarrek ere aztertzen ditu. Ondorioak Marbellaren oso antzekoak dira: emakume auzipetuek ez zuten kargu politikorik izan, baina ezarritako zigorrak kargu politikoak zituzten gizonen bezalakoak izan ziren. Berriz ere ikusten da erantzukizun moralaren presentzia, eta ezarritako zigorren eta egotzitako delituen arteko aldea (Prieto Borrego, 2010).

Pura Sánchez Sánchezek Andaluzia osorako azterketa sakona egiten du. Sumario militarrek eta Sevillako Artzapezpikutzaren Aldizkari Ofizialaren diskurtso azterketaren bidez ondoriozta daiteke Andaluziako emakumeak errepresaliatu zituztela bete behar zuten espazio soziala (eremu pribatua) urratzeagatik eta eskatzen zitzairen jardun moralara urratzeagatik. Halaber, salaketa bera gizonentzat eta emakumeentzat izanik, zigorra gehienetan emakumeen kasuan handiagoa den kasuak aipatzen ditu. Desberdintasun hori nabarmentzen du, non kondena ezartzeko arrazoiak askotan hutsalak ziren (Sánchez Sánchez, 2009).

Encarnación Barranquero Texeirak Andaluziarako ondorioztatzen du emakumeak eredu tradizionala urratzeagatik zigortu zituztela lehenik, eta izaera politikoko delituengatik bigarrenik. Beste ondorio batzuk gehitzen ditu: jokabide politikoen zehaztugabetasuna, militantzia politikoen zehaztugabetasuna, eta nabarmentzen du exekutatu, preso edo prozesatutako emakumeen kopurua handiagoa izan zela Andaluzian beste eskualde batzuetan baino, non 1400 emakume exekutatu eta hil baitziren kartzeletan (Barranquero Teixeira, 2023, 34 or.).

Euskal Herrian ere emakumeen espetxeak aztertu izan dituzte hainbat ikerketek. Bilboko Orue txaletan egondako emakumeen datuak aurkezten dituzte Antonio Pérez Embeitia, Aritz Onaindia Martínez eta Jon Penche Gonzálezek. Gehienak emakume gazteak izan ziren (18 eta 25 urte bitartekoak), Bizkaikoak eta 30 urteko zigor kartzela zutenak. Behin-behineko espetxe hura 1937 emakumeentzako zigor esparrua bihurtu zuten (Pérez Embeitia; Onaindia Martínez, eta Penche González, 2023. 87-91 or.). Autore horiek antzeko ikerketa bat egin dute Saturrarango espetxeko emakumei buruz. Emakumeen espetxe horrek oso baldintza lazarriak zituen eta Espainia iparraldeko eta erdialdeko emakumeentzako espetxe handiena izan zen, non 2400tik gora emakume egon baitziren preso.<sup>3</sup>

### **Justizia militarra Nafarroan genero ikuspegi batetik**

Arestian aipatutako ikerketetatik abiatuta Nafarroan 1936tik 1948ra justizia militarrek emakumeen aurka abiatu zituen prozesuak genero ikuspegi batetik aztertu nahi dira. Horretarako, epe horretako emakumei hasitako sumario militarrekin lanean gabiltza. 2024. urtearen amaieran artikulua bat argitaratu zen non 1936-1940 urteen artean errepresio elementuek erabilitako diskurtsoen azterketa bat egiten zen. Artikulu horrek, halaber, egiaztatu nahi zuen beste egile batzuek


egiaztatu zuten errepresio espezifikoak Nafarroan ere gertatu ote zen, eta emakume horiei irekitako sumarioetan urratze moralek politikoek baino presentzia handiagoa izan ote zuten (Garjon Irigoien, 2024).

Hasierako analisi horretan soilik 1936-1940 aldian emakumeei irekitako sumarioak erabilgarri zeuden. Horretarako Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) Nafarroako Oroimen Historikoaren Dokumentazio Funtsean (NOHDF) eta Nafarroako Memoriaren Institutuko (NMI) Memoriaren Dokumentazio Zentroan (MDZ) zeuden sumarioak kontsultatu ziren. Egun, Defentsaren Artxibo Orokor eta Historikoan (*Archivo General e Histórico de Defensa*, AGHD) eskuragarri dauden sumario guztiak eskuratu ahal dira, non 1900-1980 epealdian Nafarroan ireki ziren justizia militarreko prozesu gehienak dauden.

Nolakoak izan zen justizia militarra Nafarroan gerra-egoerak iraun zuen bitartean? Eraiketa gehienak judizioz kanpo egin baziren, zer helburu zituen justizia militarra? Ricardo Urrizola Hualdek Nafarroan irekitako hainbat sumario deskribatzen eta aztertzen ditu, garaian Nafarroako Komandantzia Militarren Artxiboan (*Archivo de la Comandancia Militar de Navarra*, ACMN) eta, neurri txikiagoan, Ipar-mendebaldeko Bitarteko Artxibo Militarrean (Archivo Intermedio Militar Noroeste, AIMN) eta Pirinioetako Bitarteko Artxibo Militarrean (*Archivo Intermedio Militar Pirenaico*, AIMP) gordeta zeudenak. Lan horretan aurrera eramandako hainbat prozesu kontatzen ditu, 2000 erreferentzia onomastiko baino gehiago lortzen ditu, eta egiaztatzen du berrogei pertsona inguruk heriotza-zigor bat jasan zutela eta zigor hori gauzatu zela; baina horietako bat bera ere ez izan emakumeen kontrakoa (Urrizola Hualde, 2017).

Lan horretatik abiatuta eta Nafarroan jurisdikzio militarra gauzatuak prozesu judizialei buruzko kontsultarekin, errepresio mota horrek suposatu zuenari buruzko lehen behin-behineko datu kuantitatiboak lor daitezke. 1936-1948 aldian, Nafarroan, 3558 prozesu ireki ziren, eta horietatik 110 emakumeen aurkakoak izan ziren, hots, % 3,09.<sup>4</sup> Ondorengo grafikoan sumarioen kopurua urteka ikus daiteke:

1. Grafikoa. Nafarroan hasitako sumarioak (1936-1948)



Iturria: Autoreak egina AHGDn dauden datuetatik abiatuta.

Datuek erakusten dute Nafarroan sumario kopuru gehien gerrako azken bi urteetan eta 1940an ireki zirela. 1936. urtea sumario kopuru txikien dituen urtea da. Horrela, egiaztatu daiteke gerra-egoerak iraun zuen bitartean sumarioen kopurua handitu egin zela, 1936. urtearekin konparatuz. Gerra urteetan kopuruak gora egiten du, baina gerraosteko datuek erakusten dute 1936 urteko kopurua baino handiagoa izaten jarraitzen duela. Garbiketa politikoa erailketen bidez oso azkar egin zen Nafarroan, 1936 urtearen amaieran, gerra garaian (1936-1939) eraildako guztien % 93,8 erail zuten; gehienak judizioz kanpoko erailketen bidez (Majuelo Gil, 2025, 34 or.). Arestian aipatu den beste zonalde batzuetan ez bezala Nafarroan justizia militarra ez zen erabili aurkaria ezabatzeko, lan hori erailketen bidez egin zen. Hala ere, datuek erakusten dute justizia militarra errepresio tresna bezala errotu zela gerra-egoera urteetan, batez ere, gizarte-kontrolerako eta paralisirako balio izan zuena.

Tokian tokiko datuek ezberdintasunak adierazten dituzten arren, argi ikusten da emakumeei irekitako sumarioen kopuruak ez duela % 10 gainditzen, erakutsiz antzeko errealitatea marrazten dela aztertutako lurralde guztietan. Ziur aski, emakumeek espazio publikoan presentzia gutxiago eta inplikazio politiko txikiagoak zituztelako jasan zuten errepresio hori modu urriagoan.

Datuen azterketarekin jarraituz, jarraian dagoen taulan sumario moten ehunekoak ikus daitezke urteen arabera:

**1. Taula. Sumario motak (1936-1948)**

SUMARIO MOTA/URTEAK	1936	1937	1938	1939	1940	1941	1942	1943	1944	1945	1946	1947	1948
Administrazio espedienteak	7,52%	9,13%	18,97%	16,25%	18,35%	24,75%	43,30%	30,59%	25,32%	24,47%	51,57%	45,69%	42,33%
Aurretiatzko eginbideak	5,26%	21,15%	23,76%	33,50%	20,41%	19,19%	11,86%	10,59%	19,62%	31,91%	30,19%	30,46%	48,47%
Ohiko sumarisimoa	6,77%	2,40%	7,37%	7,46%	14,02%	28,28%	32,99%	34,71%	43,67%	37,23%	18,24%	23,86%	9,20%
Premiazko sumarisimoa	76,69%	54,33%	43,09%	32,50%	29,69%	23,74%	8,76%	24,12%	8,86%	2,66%	0,00%	0,00%	0,00%
Beste batzuk	3,76%	12,98%	6,81%	10,28%	17,53%	4,04%	3,09%	0,00%	2,53%	3,72%	0,00%	0,00%	0,00%
<b>G U Z T I R A</b>	<b>100%</b>	<b>100%</b>	<b>100%</b>	<b>100%</b>	<b>100%</b>	<b>100%</b>	<b>100%</b>	<b>100%</b>	<b>100%</b>	<b>100%</b>	<b>100%</b>	<b>100%</b>	<b>100%</b>

Iturria: Autoreak egina AHGDn dauden datuetatik abiatuta.

Ikus daitekeen bezala, datuetan atzematen da prozedura sumarisimoek baliagarriak izan zirela gizarte zigortzeko, eskubideak urratuz. Aipatu den moduan, JDNk espreski sumario mota horiek ezarri zituen delitu politikoak zigortzeko eta prozesuak azkartzeko. 1936tik 1941era premiazko sumarisimo prozedura ohikoena izan zen Nafarroan, irekitako kopuruaren erdia baino gehiagokoa izanik. Gerra eta gerraosteko lehenengo urteetan gehien erabilitako sumario mota horiek balio izan zuten, beste tresna batzuen artean, gizarte-kontrola bermatzeko, hots, desbideratutako jarrerren prebentziorako tresna gisa. Halere, deigarria da 1944-1945 urteetan nola egiten duten gora sumarisimoen prozedurek. Urte horietan makien sarrera gertatu zen Nafarroan hainbat ikerketek eta azkeneko urteetan aurrera eramán di-

ren hainbat desobiratzek erakusten duten moduan<sup>5</sup>, eta horrek agian eragina izan zuen prozedura summarisimoen kopuruaren gorakadan. Hipotesi bat da eta sakon aztertu beharko den zerbait, ea makien presentziak Nafarroan prozedura judicial summarisimoen erabilera bultzatu zuen, hots, zer eragin izan zuen erresistentzia anti-frankistak justizia militarrean. AGHDn aztertutako datuen arabera, urte horietatik aurrera eta 1950 urtera arte 38 sumario ireki ziren makien aurka.

Administrazio espedientei begira, aztertutako azkeneko hiru urteetan ehunekoak gora egiten du, hots, militarren jarrerak gehiago zigortu ziren urte horietan. Horiekin batera, aurretiazko eginbideak daude, non 1945etik aurrera ehunekoak gora egiten duen. Horrela, berriz ere erakusten da justizia militarrek gizarte-kontrolerako zuen gaitasuna, espediente kopuru handiak irekiz; nahiz eta gero jarraipenik ez izan. Bai barne eta bai kanpoko jarrera desbideratuak zigortzeko tresna baliagarria izan zen.

### **Emakumeen aurkako errepresioaren adibide batzuk justizia militarrean**

Sumarioen azterketan topatutako adibide batzuen bidez beste lan batzuetan ematen diren joerak Nafarroako kasuan ere antzematen direla erakutsi nahi da, behitatz behin-behineko modu batez. Nafarroan emakumeek justizia militarren bidez errepresioa jasan zuten, baina hainbat moduez deskribatu ziren beraien jarre-  
rak eta zigorgarriak ziren arrazoiak diferenteak izan ziren ere bai.

Hasteko, sumario bakar bat hasi zen miliziano baten kontra, hots, Delfin Gil Arbizu-ren aurka, Los Arcos-en jaioa. Kontuan izanda Nafarroan ez zela gerra frontetik izan deigarria da topatzea sumario bat non Bizkaian egondako emakume miliziano nafar bat epaitzen den. *Museo Virtual de la Mujer Combatiente* (MVMC) proiektuan ikus daiteken moduan, frontean emakume-miliziano nafarrak izan ziren, eta orokorrean, borrokatzen egondako tokietan ireki zizkieten sumarioak. Proiektu honek emakume milizianoen parte hartzea berreskuratzen du zenbait iturrien ustiaketa egin eta gero. Pompeu Fabra Unibertsitateak (*Universitat Pompeu Fabra*, UPF) martxan jarritako proiektua da, NMIren eta beste artxibategi, erakunde eta proiektuen babesarekin. Momentuz, Nafarroan jaiotako 15 emakumeen historiari berreskuratu ahal izan dira.<sup>6</sup>

Sumario horretan ikus daiteke etsaiaren estigmatizazioa izan zela erregimen berriaren propagandak erabili zuen funtzioetako bat, justizia militarren bidez. Milizianoaren irudi estereotipatua egiaztatzen da, emakumeen irudi tradizionalarekin apurtzen zuen transgresio arketipoa, gizonen jantziak hartuz eta politikoki inplikatur. Horrela, milizianoak zigortu eta berrezi nahi ziren, gizarte-ordena berrian emakumeek bete behar zituzten rolak eta posizioak finkatur. Deskribapenek behin baino gehiagotan azpimarratzen dutenez, «era una de las varias milicianas que frecuentaba los diversos frentes y ostentaba correa y pistola al cinto» (Nafarroako Memoriaren Institutua, Memoriaren Dokumentazio Zentroa, *Archivo General e Histórico de Defensa*, 21373\_4).<sup>7</sup> Orain arte aztertutako kasu guztietatik heriotza-

zigorra ezarri zaion emakume bakarra dugu eta 1943ko urtarrilean sei urteko zigor-ragatik kommutatu zioten.

Erantzukizun morala faktore zigorgarri gisa agertzea eta erantzukizun politikoaren aurrean jartzea, azterketa egiterako orduan kontuan izandako beste faktore bat da. Deskribapen batzuetan urratze moralak aipatzen dira, baina kasu guztietan ez dira zigorgarri bihurtuko. Adibidez, Casimira Andiarena Gomezi oihu subertsiboak egin izana leporatu zioten eta «simpatizante de izquierdas» gisa definitzen da, zehaztasun gehiagorik gabe. Baina haren jokabideari buruzko txostenetako batek honela deskribatzen du: «vivía separada de su marido y, rumor público es que hacía vida marital con un sobrino de ella» (Nafarroako Oroimen Historikoaren Dokumentazio Funtsa, Urrizola Funtsa, *Archivo de la Comandancia Militar de Navarra*; Leg. 29, Orden 1789).<sup>8</sup> Zortzi urte eta egun bateko espetxe-zigorra ezarri zioten, baina ezin izan zuten egiaztatu benetan oihuak berak egin ote zituen.

Bestalde, emakumeen agentzia aintzat ez hartzea da justizia militarra genero ikuspegi batetik egindako ikerketetan aipatzen den beste elementu bereizgarrietako bat. Bertan ikusten da nola kentzen zitzaizkien agentzia horiek zeharkako indarkeriarekin lotuta, nahiz eta azkenean hori ez izan salbueslea zigorrak ezartzerakoan (Moya Alcañiz, 2015, 2023). Elicia Apesteguía Cíaren aurkako kasuan, *glorioso movimiento nacional*-aren aurkako jardunari dagokionez jokabideari buruzko txosten batek honako hau dio: «durante aquel periodo un hijo de esta dio muerte al Alcalde de la localidad inducido por ella» (NOHDF, Urrizola Funtsa, ACMN; Leg. 10, Orden 710). Azkenik, jarduketak erantzukizunik adierazi gabe amaituko dira.

Era berean, Nicanor Napal Gabarra eta Cristina Sánchez Salaverriren aurka hasitako sumarioan, Murillo del Fruton Mola jeneralaren telegrama bat iritsi zela abisatzeagatik, emakume horien jokabideari buruzko txosteneko deskribapen baten bidez agentzia kentzen dizkietela ikus daiteke. Txosten horietako batek Cristina honela deskribatzen du: «de ideas extremistas bien marcadas [...] bien fuera por inculcación de su amo que era propagandista ateo y comunista o bien por su hermano mayor» (NOHDF, Urrizola Funtsa, ACMN; Leg. 49, Orden 2609). Agentziaren aitortza falta hori ez zen salbuetsi izan prozesu horretan kondenatu bakarra bera izan zedin.

Azken adibide gisa, Modesta Inda Larreari irekitako sumarioa da, Porfirio Lópezekin ezkondata egon gabe bizitzeagatik. Porfiriori buruz gobernu militarren txosten batek honela dio:

«Vive con su querida llamada Modesta, de pésimos antecedentes, tanto morales como sociales. La conocí hace aproximadamente dos años en un burdel de lo más bajo en San Sebastián donde ejercía la prostitución. Está influida no poco en las ideas disolventes del Porfirio» (NOHDF, Urrizola Funtsa, ACMN; Leg. 32, Orden 1927).

Berriz ere, emakumeen agentziaren eta gaitasun politikoen falta sumatzen da diskurtsoan.

## Azken gogoetak

Egindako deskripzioa eta azaldutako datuek hainbat gogoeta egiteko aukera ematen dute. Hasteko, arestian azaldu den moduan, Nafarroan garbiketa politikoa judizioz kanpoko erailketen bidez egin zela eta justizia militarrek heriotza-zigor gutxi ezarri zituela. Baina, paralisirako eta gizarte-kontrolerako tresna baliagarria izan zela ondorioztatu daiteke. Datuek erakusten dute justizia militarra delitu politikoak epaitzeko ezarri eta gero prozesatutako pertsonen kopuruak gora egiten duela. Altxamendu militarra eta gero justizia mota hori berriz ere militarrek ez ziren pertsonen aurka bideratu ahal zen eta hori nabarmentzen da irekitako prozesuen kopuruan. 1938-1940 urteetan irekitako prozesuen kopurua hirukoiztu egiten da aurreko bi urteekin konparatuz. Berdina gertatzen da summarisimo prozeduraren erabilerarekin. Eskubideak urratzen zituen prozedura hori errotu egin zen Nafarroan, batez ere gerra-egoera indarrean egon zen urteetan; aurretik pentsatutako eta prestatutako estrategia baten isla, gizartea kontrolatzeko helburuarekin.

Genero ikuspegiak erakusten du Nafarroan ere justizia militarra ez zela berdina izan gizonentzat eta emakumeentzat. Osagai moralak oso presente dago salaturako emakumeak deskribatzeko erabilitako diskurtsoan, eta alderdi hori ezin izan da egiaztatu aztertutako auzipetutako gizonen deskribapenetan. Ikus daitekeenez, urratze moralak zigorgarriak izan ziren, eta lehenik, urratze moralengatik zigortu zituzten, eta, bigarrenik, urratze politikoengatik. Hau ere, ikusi den moduan, beste zonalde batzuetan gertatu zen. Planteatu daiteke justizia militarrek antzeko moduak izan zituela emakumeen kontra joaten zenean: urratze moralak eta desbideratutako jarrerak zigortu berrheziketarako bidea irekiz. Emakume errepublikarraren eredia aldatu behar zen emakume frankistarena ezartzeko. Frogatu beharko hipotesia da, baina argi agertzen dira justizia militararentzat zeintzuk ziren emakumeek bete behar zituzten rola eta okupatu behar zituzten eremuak. Hori ikus daiteke, halaber, elementu errepresoren deskribapenetan, non askotan agentzia kentzen zizkieten.

Datu orokorreari begira emakumeei irekitako prozesuen kopuruak ez du beste ikerketa batzuek dioten % 10 gainditzen, beraz Nafarroan emakumeei irekitako sumarioen kopurua beste zonalde batzuetakoen antzekoa da. Emakumeek eremu publikoan eta politika arloan zuten presentzia txikiagoak eragina izan zuen irekitako sumarioen kopuruan.

Azkenik, sumario horien azterketan sakontzen jarraitzen den heinean datu zehatzagoak lortu ahal izango dira, errepresio politikoari buruzko hainbat datu-batuekin gurutzatu beharko direnak. Halaber, datu kuantitatibo espezifikoak lortuko dira: ezarritako zigorrak, profil soziologikoak, kommutatuko urteak... Azterketa kualitatibo bat ere egiten ahalko da, emakumeek ere justizia militarren bidez Nafarroan jasan zuten errepresio espezifiko horren helburuak behatu ahal izateko, edota emakumeen aurka hasitako prozesuak eta gizonen aurka hasitakoak zertan berezi ziren egiaztatzeko.

## OHARRAK

1. Egin diren ikerketen artean azterketa aproposa egin dute honako autoreek: Oier Santamaría Remón (Santamaría Remón, 2025), Guillermo Portilla Contreras (Portilla Contreras, 2019) eta Arturo Arnalte (Arnalte, 2003).
2. *Boletín Oficial de la Junta de Defensa Nacional de España*, 1936ko uztailaren 30ean, 5. artikulua.
3. Saturrarango espetxean emakumeek pairatutako egoera ikerlari askok aztertu dute, horien artean: Miren Arantza Ugarte Lopetegi (Ugarte Lopetegi, 2017), María Gorosarri González eta Eduardo Barinaga (Gorosarri González eta Barinaga, 2010), eta Emakundek argitaratutako lantaldea (Jimenez Martín et al., 2012).
4. AGHD-k duen informaziotik lortutako datuak, 1900-1980 eperako eskuragarri dauden sumario guztiak ikus daitezke bertan.
5. Asko dira makien inguruan egindako ikerketak, horien artean Secundino Serrano (2006), Mikel Rodríguez (2001), Roda Hernández (1990) edo berriagoa den lan kolektiboa (Díaz Díaz et al., 2023).
6. Proiektua ondorengo estekan kontsultatu daiteke: <https://mujeresenguerra.upf.edu/>
7. Hemendik aurrera (NMI, CDM, AHGD...).
8. Hemendik aurrera (NOHDF, Urrizola Funtsa, ACMN...).

## ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

### LEHEN MAILAKO ITURRIAK

- Archivo General e Histórico de Defensa. *Auditoría de la VI región militar. Expedientes judiciales (1936-1980)*.
- Boletín Oficial de la Junta de Defensa Nacional de España (30 de julio de 1936)
- Nafarroako Oroimen Historikoaren Dokumentazio Funtsa. *Urrizola funtsa, Archivo de la Comandancia Militar de Navarra*.
- Nafarroako Memoriaren Institutua. Memoriaren Dokumentazio Zentroa. *Archivo General e Histórico de Defensa*.

### BIGARREN MAILAKO ITURRIAK

- ABAD BUIL, Irene; HEREDIA URZÁIZ, Ivan, eta MARIÁS CADENAS, Suéscun (2012): «Castigos “de género” y violencia política en la España de Posguerra. Hacia un concepto de “Represión sexual” sobre las mujeres republicanas», IBARRA AGUIRREGABIRIA, Alejandra (koord.), *No es país para jóvenes*.
- ARNALTE, Arturo (2003): *Redada de violetas: la represión de los homosexuales durante el franquismo*. Madril: Egales.
- BARRANQUERO TEXEIRA, Encarnación (2023): «Las mujeres antifranquistas andaluzas en las investigaciones elaboradas a partir de fondos documentales militares. Espacio, tiempo y forma», *Historia contemporánea*, (35), 19-38.
- CARRILLO LÓPEZ, Marc (2006): «El marco legal de la represión en la dictadura franquista durante el periodo 1939-1959», GÓMEZ ISA, Felipe (zuz.) *El derecho a la memoria*, 501-528, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- CASTRO CAMPANO, Diego (2010): «Los sumarísimos de la guerra civil: El archivo del tribunal militar territorial primero», *Boletín informativo: Sistema Archivístico de la Defensa*, (18), 3-26.
- CENARRO LAGUNAS, Ángela (2023): «Mujeres, género y violencia en los orígenes de la Dictadura de Franco», PENCHE GONZÁLEZ, Jon; BUCES CABELLO, Javier eta MIRENA LANDA, Jon (koord.), *Represión de género en el franquismo*, 17-41, Valentzia: Tirant Humanidades.
- DÍAZ, Benito; RECIO, Armando eta BERNARDO MORENO, Juan (koord.), (2023): *Maquis, la resistencia armada. Historia de la guerrilla antifranquista 1939-1952*. Gijón: Trea.

- EGIDO LEÓN, Ángeles (2009): *El perdón de Franco: La represión de las mujeres en el Madrid de la Posguerra*. Madril: Catarata.
- (2018): Milicianas condenadas a muerte, *Historia del presente*, (32), 113-126.
- GARJON IRIGOIEN, Aitor (2024): «Vestida con un buzo y armada con un fusil»: Análisis de género en la justicia militar contra las mujeres en Navarra (1936-1940)», *Gerónimo de Uztariz*, (38), 101-122.
- GINARD FÉRON, David (2011): «Dona i repressió sota el franquisme. El cas de les Illes Balears», GINARD FÉRON, David (koord.), *Dona, guerra civil i franquisme*, 147-194.
- GÓMEZ BRAVO, Gutmaro eta MARCO, Jorge (2011): *La obra del miedo: Violencia y sociedad en la España franquista (1936-1950)*. Bartzelona: Península.
- GOROSARRI GONZÁLEZ, María eta BARINAGA, Eduardo (2010): *No lloréis, lo que tenéis que hacer es no olvidarnos. La cárcel de Saturrarán y la represión franquista contra las mujeres, a partir de testimonios de supervivientes*. Aduna: Ttartalo Argitaletxea.
- IBÁÑEZ DOMINGO, Mélanie (2021a): «La jurisdicción de Responsabilidades Políticas contra las mujeres, 1939-1945», *Arenal: Revista de historia de las mujeres*, 28(1), 259-288.
- (2021b): «Liquidar las culpas. Un balance femenino», MIR CURCÓ, Conxita eta CENARRO LAGUNAS, Ángela (arg.), *Mujeres, género y violencia en la Guerra Civil y la dictadura de Franco*, 117-149. Valentzia: Tirant Humanidades.
- JIMÉNEZ MARTÍN, Eva; LEÓN NANCLARES, Ander; ORBEGOZO OROÑOZ, Izaskun; PEGO OTERO, Laura; PÉREZ MACHÍO, Ana Isabel eta VOZMEDIANO SANZ, Laura (2012): *Situación penitenciaria de las mujeres presas en la cárcel de Saturrarán durante la Guerra Civil Española y la primera posguerra. Hacia la recuperación de su memoria*. Bilbo: EHU.
- JIMÉNEZ VILLAREJO, Carlos eta DOÑATE MARTÍN, Antonio (2012): *Jueces, pero parciales. La pervivencia del franquismo en el poder judicial*. Bartzelona: Pasado y Presente.
- JIMENO ARANGUREN, Roldán (2019): «Jurisdicción militar y represión (1936 y 1977)», JIMENO ARANGUREN, Roldán (koord.) *La represión de la Administración de Justicia en la Guerra Civil y el franquismo: homenaje al juez Luis Elío*, 37-82. Valentzia: Tirant lo Blanch.
- JOLY, Maud (2002): «Posguerra y represión «sexuada: Las republicanas rapadas por los franquistas (1936-1950)», *Enfrontaments civils: postguerres i reconstruccions. Actas del II congreso de la Asociación Recerques*, (2) 910-921.
- KELLY, L. (2000): *States of Conflict: Gender, Violence, and Resistance*. Londres: Zed Books.
- LAYANA ILUNDÁIN, César (2021): *Expolio y castigo: La represión económica en Navarra, 1936-1945-1966*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- LLONA GONZÁLEZ, Miren eta ARESTI ESTEBAN, Nerea (2019): «Mary Nash, tras las huellas del feminismo histórico», ORTEGA LÓPEZ, María Teresa; AGUADO, M. eta HERNÁNDEZ SANDOICA, Elena, *Mujeres, dones, mulleres, emakumeak: Estudios sobre la historia de las mujeres y del género*, 359-378. Madril: Cátedra.
- MAJUELO GIL, Emilio (2025): «El obispo Marcelino Olaechea Loizaga ante la represión en Navarra (1936-1938)», *Memoriapaper(ak)*, (22).
- MIR CURCÓ, Conxita (1997): *Repressió econòmica i franquisme: L'actuació del tribunal de responsabilitats polítiques a la província de Lleida*. Bartzelona: L'Abadia de Montserrat.
- MOYA ALCAÑIZ, F. (2015): «Mujeres sentenciadas a muerte: El discurso represivo de la justicia militar franquista en la guerra civil (1936-1939)», *Historia del presente*, (25), 115-132.
- (2023): *Que vuestro nombre no se olvide. Mujeres condenadas a muerte en los consejos de guerra franquistas (1936-1945)*. Granada: Comares.

- NADAL SÁNCHEZ, Antonio (1987): «Experiencias psíquicas sobre mujeres marxistas malagueñas», *Baética. Estudios de Arte, Geografía e Historia* (10), 365-383.
- NASH BALDWIN, Mary (2015): «Vencidas, represaliadas y resistentes. Las mujeres bajo el orden patriarcal franquista», CASANOVA RUIZ, Julián (koord.) *Cuarenta años con Franco*, 191-228.artzelona: Crítica.
- ONAINDIA MARTÍNEZ, Aritz; PÉREZ EMBEITIA, Antonio eta PENCHE GONZÁLEZ, Jon (2023): «Cumplir pena en Euskadi: estudio prosopográfico de las presas en Saturrarán», PENCHE GONZÁLEZ, Jon; BUCES CABELLO, Javier eta MIRENA LANDA, Jon (koord.), *Represión de género en el franquismo*, 105-136. Valentzia: Tirant Humanidades.
- PÉREZ EMBEITIA, ANTONIO; ONAINDIA MARTÍNEZ, Aritz; eta PENCHE GONZÁLEZ, Jon (2023): «Mujer y represión franquista en Bilbao. El chalet Orue», *Huarte de San Juan. Geografía e historia*, (30), 69-92.
- PÉREZ GÓMEZ, María de los Llanos (2022): *Condenadas a muerte: La mujer frente a la justicia militar franquista en Albacete (1939-1943)*. Albacete: Altabán Ediciones.
- PIÉROLA NARVARTE, Gemma (2023): «Violencia hacia las mujeres durante el segundo franquismo, ¿una continuación de la anterior?», PENCHE GONZÁLEZ, Jon; BUCES CABELLO, Javier eta MIRENA LANDA, Jon (koord.), *Represión de género en el franquismo*, 177-197. Valentzia: Tirant Humanidades.
- PORTILLA CONTRERAS, Guillermo (2019): *Derecho penal franquista y represión de la homosexualidad como estado peligroso*. Madril: Ministerio de Justicia, Secretaria General Técnica.
- PRIETO BORREGO, Lucía (2007): «Mujer y anticlericalismo: La Justicia Militar en Marbella 1937-1939», *Historia Actual Online*, (12), 95-106.  
—(2010): «Procesos y procesadas. Mujer y justicia militar en la provincia de Málaga», BARRANQUERO TEXEIRA, Encarnación (arg.) *Mujeres en la Guerra Civil y el Franquismo: violencia, silencio y memoria de los tiempos difíciles*, 47-72. Málaga: Centro de Ediciones de la Diputación Provincial de Málaga.
- RODA, Paco (1990): «El maquis en Navarra. Octubre de 1944», *Príncipe de Viana*, (189), 269-302.
- RODRÍGUEZ, Mikel (2001): *Maquis: la guerrilla vasca. 1938-1962*. Tafalla: Txalaparta.
- RODRÍGUEZ RUBIO, Paloma (2021): «Violencia sexuada y represión en la guerra civil española y en el franquismo», *Cuadernos republicanos*, (107), 90-125.
- SÁNCHEZ SÁNCHEZ, Pura (2021): *Individuas de dudosa moral: La represión de las mujeres en Andalucía (1936-1958)*.artzelona: Bellaterra Edicions.
- SANTAMARÍA REMÓN, Oier (2025): «La represión de la Navarra LGTBI en el franquismo. Análisis a través de testimonios orales y de nuevos documentos», *Memoriapaper(ak)*, (21).
- SCOTT, Joan Wallach (1990): «El género: Una categoría útil para el análisis histórico», AMELANG, James eta NASH BALDWIN, Mary (arg.) *Historia y género: las mujeres en la Europa moderna y contemporánea*, 23-58.
- SERRANO, Secundino (2006): *Maquis: Historia de la guerrilla antifranquista*.artzelona: Booket.
- UGARTE LOPETEGI, Miren Arantza (2017): «Saturrarán: sólo quedan los tamarindos», EGIDO LEÓN, Ángeles (koord.), *Cárceles de mujeres: la prisión femenina en la posguerra*, 305-319. Madril: Sanz y Torres.
- URRIZOLA HUALDE, Ricardo (2017): *Consejo de guerra. Navarra bajo la injusticia militar (1936-1940)*. Tafalla: Txalaparta.

## LABURPENA

Frankismoak herritarrak zapaltzeko erabili zuen elementuetako bat justizia militarra izan zen. Emakumeek ere modu espezifikoan jasan zuten errepresio mota hori, eta oinarri juridikoak generoari dagokionez bereizketarik egiten ez bazuen ere, egiaztatu da zigorgarriak ziren jarduerak ez zirela berdinak izan gizonentzat eta emakumeentzat.

Lan honetan, justizia militarri buruz genero ikuspegitik egindako zenbait ikerketa deskribatzen dira, batez ere ateratako ondorioetan arreta jarritz. Nafarroan 1936-1948 aldian emakumeei irekitako sumario militarrekin lan egin da, artxiboetan eta dokumentazio funtsetan eskuragarri daudenak.

Horri guztiari esker, Nafarroako justizia militarri buruzko lehen behin-behineko zifra kuantitatiboak lortu ahal izan dira, eta, aldi berean, sumario horietako batzuei egindako azterketa kualitatibo batek egiaztatu izan ahal du ikerketa batzuetan ondorioztaturakoa Nafarroan ere gertatu zela.

Azkenik, hainbat bide planteatzen dira, eta emakumeek justizia militarren bidez jasandako errepresio espezifikoan sakontzen jarraitu nahi da, izan ere, errepresio hori Nafarroan ere berezia izan zen, eta askoz ere indar handiagoa jarri zuen urratze moraletan, politikoetan baino.

**HITZ GAKOAK:** justizia militarra, emakumeak, errepresio espezifikoak, egindako ikerketak, generoa.

## RESUMEN

Uno de los elementos que utilizó el franquismo para reprimir a la población fue la justicia militar. Las mujeres también sufrieron de forma específica este tipo de represión, y aunque la base jurídica no hacía distinciones en cuanto al género, se ha comprobado que las actividades punibles no fueron iguales para hombres y mujeres.

En este trabajo se describen varios estudios realizados sobre la justicia militar desde la perspectiva de género, centrándose sobre todo en las conclusiones. En Navarra se ha trabajado con sumarios militares incoados a mujeres en el periodo 1936-1948, disponibles en archivos y fondos documentales.

Todo ello ha permitido obtener las primeras cifras provisionales cuantitativas sobre la justicia militar en Navarra, al tiempo que un análisis cualitativo realizado a algunos de estos sumarios ha podido constatar que lo deducido en algunas investigaciones también ocurrió en Navarra.

Finalmente, se plantean diversas vías y se pretende seguir profundizando en la represión específica sufrida por las mujeres a través de la justicia militar, que también fue singular en Navarra y que puso mucho más énfasis en las transgresiones morales que en las políticas.

**PALABRAS CLAVE:** justicia militar, mujeres, represión específica, investigaciones realizadas, género.

## ABSTRACT

One of the elements that Franco's regime used to repress the population was military justice. Women also suffered this type of repression in a specific way, and although the

legal basis did not make distinctions in terms of gender, it has been verified that the punishable activities were not the same for men and women.

This paper describes several studies on military justice from a gender perspective, focusing mainly on the conclusions. In Navarre, the work has been done with military summaries brought against women in the period 1936-1948, available in archives and documentary collections.

This has allowed for the first provisional quantitative figures on military justice in Navarre to be obtained, while a qualitative analysis of some of these cases has confirmed that what was deduced in some investigations also occurred in Navarre.

Finally, various paths are proposed and it is intended to continue delving into the specific repression suffered by women through military justice, which was also unique in Navarre and which placed much more emphasis on moral transgressions than on political ones.

**KEYWORDS:** military justice, women, specific repression, investigations conducted, gender.